

LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

OHIKO GALDERAK
MAILAK ESLEITZEKO BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN

Osakidetza

1. BERTSIOA

OSAKIDETZAKO LANBIDE-GARAPENeko OHIKO DEIALDIA (2425/2023 EBAZPENA) ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN OHIKO GALDERAK (787/2024 EBAZPENA)

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	1
1. GAI OROKORRAK	2
2. NOLA KONTSULTATU EBALUAZIO-FASEAN LORTUTAKO PUNTUAZIOAK.....	6
3. MAILA-ESLEIPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA.....	11
4. HURRENGO URRATSAK	18

1. GAI OROKORRAK

1. 787/2024 EBAZPENAREN KONTSULTATU DUT, ETA EZ NAGO ERANSKINEAN. ZERGATIK?

Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 20eko 453/2024 Ebazpenaren arabera, deialdi honetan onartuta bazeuden eta, hala ere, zure izena ez bada agertzen 787/2024 Ebazpenaren eranskinean, horrek esan nahi du **ebaluazio negatiboa izan duzula ebaluazio-fasean** eta, ondorioz, ez zaizu aitortuko deialdi honetan lortu nahi zenuen lanbide-garapeneko maila. Kontuan izan Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren 787/2024 Ebazpenaren eranskinak jasotzen duela **ebaluazio positiboa** lortu duten pertsonen lanbide-garapeneko mailen behin-behineko esleipena, 2023ko ekitaldiko deialdirako.

2. EZ NAIZ ERANSKINEAN AGERTZEN, LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAN. IKUSI DUT A ETA C BLOKEETAN GUTXIENENKO PUNTUAZIOA LORTU DUDALA, BAINA EZ B BLOKEAN. HORREK ESAN NAHI AL DU NIRE ESKAERA OFIZIOZ BAZTERTZEN DELA?

Bai, hala da. Ebaluazio-prozedura amaitu ondoren, **B blokean** (Prestakuntza, Irakaskuntza, Jakintzaren hedapena, Ikerkuntza eta Berrikuntza) **gutxieneko puntuazioa lortu ez duten, baina A blokean** (Jarduera, Lanean aritzea eta Lanbide-jakintza) **eta C blokean** (Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa) **bai lortu duten** pertsona onartuen eskabideak lanbide-garapeneko deialdi honetatik **kanpo geratuko dira, ofizioz**. Nabarmendu behar da **ez dela argitaratuko** arrazoi horrengatik **ofizioz baztertu diren pertsonen zerrenda**. Hala ere, informazio hori Osakidetza-ko informazio-sistemetan erregistratuta geratuko da.

3. ZER ALDE DAGO DEIALDIAN OFIZIOZ BAZTERTU IZATEAREN ETA 787/2024 EBAZPENAREN ERANSKINEAN EZ AGERTZEAREN ARTEAN?

Aldea da B blokean (ikus 2. galdera) soilik eskatzen den gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik ofizioz baztertutako pertsonen **bai ahalko dutela** lanbide-garapeneko hurrengo deialdietan parte hartu. Hala ere, 787/2024 Ebazpenaren eranskinean agertzen ez direnek eta ez dutenek betetzen eskatutako gutxieneko puntuazioa B blokean soilik edo B blokean eta beste bloke batean edo batzuetan, ebaluazio negatiboa jasoko dute. Ondorioz, **bi urte itxaron beharko dute**, mailen behin betiko esleipenaren ebazpenetik aurrera, lanbide-garapeneko **beste deialdi batean parte hartu ahal izateko**, azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 38. artikulua 1. puntuko c letrak ezartzen duen bezala.

4. EZ NAIZ AGERTZEN 787/2024 EBAZPENAREN ERANSKINEAN; BERAZ, USTE DUT EZ ZAIDALA AITORTUKO DEIALDI HONETAN LORTU NAHI NUEN GARAPEN-MAILA. NOLA GERTA LITEKE MAILA HORI EZ AITORTZEA, GARAPEN-MAILA HORRETARAKO ESKATZEN DIREN ZERBITZU-URTEAK BADITUT?

Ezinbesteko baldintza da lanbide-taldean emandako zerbitzu-urte kopuru jakin bat izatea garapen-maila jakin bat lortzeko, **baina ez da nahikoa** maila hori aitortzeko. Lanbide-garapeneko deialdi honetan onartuta bazeunden (hau da, zure izena ekainaren 20eko 453/2024 Ebazpenaren eranskinean jasota bazegoen), arrazoa zen Osakidetza jada egiaztatu zuela sartzeko baldintza guztiak betetzen zenituela, besteak beste, garapen-maila hori lortzeko eskatzen diren zerbitzu-urteak.

Lanbide-garapeneko deialdian onartutako pertsona guztiak dekretu hauetan ezarritako **ebaluazio-irizpideen arabera ebaluatu dira**, kasu bakoitzean dagokionaren arabera: azaroaren 22ko 395/2005 Dekretua (A1 lanbide-taldeko Fakultatibo Mediko eta Teknikoentzat), otsailaren 27ko 35/2007 Dekretua (B1 lanbide-taldeko Diplomadun Sanitarioentzat) edo abenduaren 26ko 248/2007 Dekretua (A2, B2, C, D eta E lanbide-taldeetako profesionalentzat).

Hiru ebaluazio-blokeetan (A blokea, Jarduera, Gaitasuna eta Betetze profesionala; B blokea, Prestakuntza, Irakaskuntza, Jakintzaren Hedapena eta Ikerkuntza/Berrikuntza eta C blokea, Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa) **ebaluazio positiboa lortu duten** eta deialdian onartu diren pertsonen soilik **esleituko zaie lortu nahi duten garapen-maila**.

5. AUTOEBALUAZIO-FASEAN, AUTOEBALUAZIO OSO POSITIBOA AURKEZTU NUEN LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAN. ZERGATIK EZ ZAIT AITORTUKO LORTU NAHI NUEN MAILA?

Prozeduraren fase horretan bete zenuen autoebaluazio-fitxa kontuan hartu da ondorengo ebaluazio-fasean, **baina ez da kontuan hartu den iturri bakarra**. Hau da, ebaluatzaileak ebidentzia objektiboak identifikatu, bildu eta aztertu zituen, **lortu nahi zenuen mailako iraunaldian izandako jokabide profesionaleri buruzkoak**, baita zure Zerbitzu/Atal/Unitateko helburuei eta emaitzei egindako jardueri eta egindako ekarpeni buruzkoak ere. Era berean, lanbide-garapenaren aplikazio informatikoak, zegoen baremoaren arabera, iraunaldiari zegozkion **curriculum-merezimenduak** baloratu zituen.

6. NOLA EGIN DA EBALUAZIO-PROZEDURA, ETA NORK PARTE HARTU DU HORRETAN?

Ebaluazio-prozedura banaka egin da, eta kontuan hartu dira, aukeratutako garapen-mailaren iraunaldian zehar, deialdian onartutako pertsona bakoitzaren jokabideak, jarduketak, ekarpenak eta curriculum-merezimenduak. **A blokeko** (Jarduera, Lanean Aritzea eta Lanbide-jakintza) eta **C blokeko** (Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa) ebaluazioak **ebaluatzaileek** egin zituzten; **B blokeko** (Prestakuntza, Irakaskuntza, Jakintzaren Hedapena, Ikerkuntza eta Berrikuntza) ebaluazioak, berriz,

Euskadi, auzolana, bien común

lanbide-garapenaren aplikazioak berak egin zituen automatikoki, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren eranskinetan jasotako merezimenduen baremoen arabera.

Ebaluatzaileek egindako ebaluazioak eta aplikazio informatikoak emandako puntuazioak **Zerbitzu Erakundeko Ebaluazio Batzordeak** aztertu eta berrikusi zituen. Zerbitzu-erakunde bakoitzean batzorde bat eratu zen A1 lanbide-taldeko Fakultatibo Mediko eta Teknikarien kategorietarako, beste batzorde bat B1 lanbide-taldeko Diplomadun Sanitarioen kategorietarako eta hirugarren batzorde bat A2, B2, C, D eta E lanbide-taldeetako lanbide-heziketako kategoria ez-sanitario eta sanitarioetarako.

Azkenik, **lanbide-garapeneko batzorde korporatiboek**, beren aplikazio-eremuan, lortutako emaitzekiko koherenziaren azterketa egin zuten, eta, hala bazegokion, 787/2024 Ebazpenaren eranskinean jasotako mailen esleipenaren behin-behineko zerrenda egin eta onartu zuten.

7. ZER DA COVID EFEKTUAGATIKO FAKTORE ZUZENTZAILEA?

B blokeko eta C blokeko curriculum-merezimenduen ebaluazioa (gogoan izan azken horretan gehienez 5 puntu lor daitezkeela) aplikazio informatikoak **modu automatizatuan egin du**, abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenean jasotako **merezimenduen baremoen arabera**.

Hala ere, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko neurrien ondorioz langileek 2020an eta 2021ean jasan zituzten **ondorio negatiboak murrizteko** (prestakuntza-, ikerketa- eta ezagutza-aukerak mugatu baitzituzten neurri horiek), **faktore zuzentzaile bat gehitu zaio** merezimenduen baremoa aplikatzearen ondoriozko zuzeneko puntuazioari. Honako formula honen arabera **lortu da azken puntuazioa**:

$$\text{- B blokean: } \frac{\text{Total puntuación Bloque B}}{\text{número años periodo permanencia} - 2} \cdot \text{número años periodo permanencia}$$

$$\text{- C blokean: } \frac{\text{Total puntuación méritos Bloque C}}{\text{número años periodo permanencia} - 2} \cdot \text{número años periodo permanencia}$$

Adibidez, profesional batek garapen profesionaleko III. maila lortu nahi du, eta egindako curriculum-merezimenduen arabera 35,21 puntu lortuko ditu. B blokeko puntuazioan 49,294 puntu jasoko ditu, faktore zuzentzailea aplikatuta:

$$\frac{35,21}{7-2} \cdot 7 = 49,294$$

Profesional horrek berak 0 puntu lortuko ditu C blokean aplikatu beharreko curriculum-merezimenduetan; beraz, 0 puntu izaten jarraitzen du, faktore zuzentzailea aplikatu arren:

$$\frac{0}{7-2} \cdot 7 = 0$$

8. ORDUAN, NOIZ LORTZEN DA EBALUAZIO POSITIBOA? ETA NOIZ NEGATIBOA?

Ebaluazio negatiboa lortzen da **hiru ebaluazio-blokeetako edozeinetan (A, B eta C blokeak) eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortzen ez denean**; ebaluazio positiboa, berriz, **hiru ebaluazio-blokeetan aldi berean gutxieneko puntuazioa lortzen edo gainditzen denean soilik lor daiteke**.

Adibidez, A eta B blokeetan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu edo gainditu baduzu, baina C blokean ez, orduan zure ebaluazioa **negatiboa** izango da. Jakina, bloke batean (A blokean, adibidez) eskatzen den gutxieneko puntuazioa bakarrik lortu edo gainditu baduzu, ebaluazioa negatiboa ere izango da. Ebaluazio **positiboa** lortzeko, A blokean, B blokean eta C blokeetan gutxieneko puntuazioa lortu edo gainditu behar duzu.

Hala ere, A eta C blokeetan eskatutako gutxieneko puntuazioak lortu edo gainditu badituzu, baina ez B blokekoak, zure eskaera **ofizioz baztertu da** (ikus 2. eta 3. galderak), eta ez duzu ebaluazio negatiborik lortu.

9. ZEIN DIRA EBALUAZIO-BLOKE BAKOITZEAN LORTU BEHAR DIREN GUTXIENeko PUNTUAZIOAK?

Lortu beharreko gutxieneko puntuazioak jasota daude **azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuan** (A1 lanbide-taldeko Fakultatibo Mediko eta Teknikarientzat), **otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuan** (B1 lanbide-taldeko Diplomadun Sanitarioentzat) eta **abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuan** (A2, B2, C, D eta E lanbide-taldeetako profesionalentzat).

2. NOLA KONTSULTATU EBALUAZIO-FASEAN LORTUTAKO PUNTUAZIOAK

10. 787/2024 EBAZPENEAN EBALUAZIO POSITIBOA LORTU DUTEN PERTSONEI ESLEITUKO ZAIZKIEN MAILAK BAINO EZ DIRA AGERTZEN. NIRE KASUAN, NOLA JAKIN DEZAKET ZER PUNTUAZIO LORTU DUDAN EBALUAZIO-FASEAN?

787/2024 Ebazpena argitaratu zenetik, deialdian onartutako pertsona guztiak sar daitezke **lanbide-garapenaren aplikazio informatikoan**, eta bertan kontsulta ditzakete hiru ebaluazio-blokeetan (A blokea, B blokea eta C blokea) lortu dituzten puntuazioak.

Horretarako, **lehenik eta behin**, sar zaitez <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus> URLan, Intranetaren edo Osakidetzaren webgunearen bidez. Aplikazio informatikotik bertatik, erabiltzaileek bi modu izango dituzte aplikaziora sartzeko:

- **Osakidetzako langileak:** NANaren eta Norbideko pasahitzaren bidez (Osakidetzako sistemetara sartzeko erabiltzen diren berberak).
- **Osakidetzako langileak eta langile ohiak:** IZENPEren bidez (Euskadiko identifikazio elektronikoa), BakQ, ziurtagiri digitalak edo Cl@ve erabilia.



Lanbide-garapenaren aplikazio informatikoan sartu ondoren, "**Langilea**" fitxaren barruan, ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpena argitaratu zenetik lortu nahi zenituen lanbide-garapeneko ohiko deialdiei buruzko informazioa ikusiko du. 2425/2023ko deialdiari buruzko informazio gehiago ikusteko, sakatu "**Arkatx**" ikonoaren **ekintza-botoia** (ikus pantaila-argazkia).

“Langilea”
fitxa

Osakidetza Lanbide-garapena ES | EU

Deialdia Egoera Aurkeztua LAN.TAL. Maila Ebaluazioa Excel

EBAZPEN-ZK. DEIALDIAREN DESKRIBAPENA EGOERA URTEA AURKEZTUA LAN.TAL. HAUTATU AHAL DUEN MAILA EBALUAZIOA EKINTZA

“Arkatz”
botoia

Abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenak argitaratutako deialdi arruntaren webgunean sartu ondoren, sakatu "**Sartu**" botoia 2023ko ekitaldiko deialdira joateko (ikusi pantaila-argazkia).

Osakidetza Lanbide-garapena PF ES | EU

Lanbide-garapenaren deialdia

Deskribapena: 2425/2023 - Lanbide Garapeneko Deialdi Arrunta Uneko egoera: DEIALDIA EGINDA Eskatzeko epearen hasiera/amalera: 2024/01/01 - 2024/03/31 Egindako zerbitzuen epemuga: 2023/12/31

Deialdiaren ebazpena Deialdiaren argibideak Erantzukizuneko adierazpena Lanbide-garapenari buruzko informazioa 1 Lanbide-garapenari buruzko informazioa 2

Lanbide Garapeneko 2425/2023 Deialdi Arrunteko Ebazpenaren (abenduak 29koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena) dionaren arabera, Lanbide-garapenaren mailaren eskaera aurkeztea borondatezkoa da, eta, eskaeran, interesdunek egiaztatu beharko dute deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela edo baldintza horiek eskaerak aurkezteko epearen barruan betetzeko moduan daudela.

Eskatzaileak baieztazen du eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdian espresuki adierazitako baldintzak betetzen dituela, eta horiek dokumentatu ahal izango ditu, hala behar izanez gero. *

Eskaera data: 26.02.2024 Eskara ordua: 13:48:16

Sartu Itzuli

Sakatu “Sartu” botoia

Hurrengo pantailan, "**Ebaluazioa**" fitxan, deialdian izandako parte-hartzearen datu nagusiak agertuko dira, eta hor aurkituko dituzu **A, B eta C blokeetako puntuazioak** (ikusi pantaila-argazkia).

Puntuazio jakin bat **berdez** agertzen bada, horrek esan nahi du puntuazio horrek lortu edo gainditu duela lortu nahi duzun garapen-mailarako lanbide-taldean eskatzen den gutxieneko puntuazioa. Aldiz, bloke jakin baten puntuazioa **gorriz** agertzen bada, horrek esan nahi du ez duzula lortu eskatutako gutxieneko puntuazioa.

Pantaila horretan bertan, gainera, **ebaluazioaren emaitza orokorra** agertuko da. **Positiboa** edo **negatiboa** izan daiteke.

Deialdia Egoera Ebaluazioa Erakunde Lanpostu fu... Excel

EBAZPEN-ZK.	EGOERA	EBALUATZAILA	NAN/AIZ	LANGILEA	LAN.TAL.	MAILA	ERAKUNDEA	A BLOKEA	B BLOKEA	C BLOKEA	LANPOSTU FUNTZIONALA	EBALUAZIOA	EKINTZA
1184/2023	Ebaluazioa amaituta				A1	3	DIRECCIÓN GENERAL	60	46	20	FE. FAMILIA-MEDIKUA (LMT)	NEGATIBOA	

A, B eta C Blokeetako puntuazioak

Ebaluazioaren emaitza

Pantaila horretan bertan, bistaratzeko ekintza dago, **"Arkatz" ikonoa sakatuz**. Botoi horren bidez hiru ebaluazio-blokeetan lortutako puntuazioen **xehapena** ikusi ahalko duzu, atalka (ikus pantaila-irudiak).

EBAZPEN-ZK.	EGOERA	EBALUATZAILE	NAN/AIZ	LANGILEA	LAN.TAL.	MAILA	ERAKUNDEA	A BLOKEA	B BLOKEA	C BLOKEA	LANPOSTU FUNTZIONALA	EBALUAZIOA	EKINTZA
1184/2023	Ebaluazioa amaítuta				A1	3	DIRECCIÓN GENERAL	60	46	20	F.E. FAMILIA-MEDIKUA (LMT)	NEGATIBOA	

"Arkatz" ikonoa sakatu

Elementua	Puntuazioa
A blokea guztira	60,00 (Min. 123,00)
Jarduera Asistentziala	28,83
Helburuak Lortu Eta Betetzeko Orientazioa	23,33
Joera Etekin	20,00
Zerbitzuaren batez besteko konparazioa	20,00
Osakidetzaren batez besteko konparazioa	30,00
Eraginkortasuna Baliabideak Kudeatzen	5,50
Antolakuntza eta plangintza	1,00
Baliabideen erabilera	10,00
Lanbide Jakintza	28,00
Jakintza Teknikoa	15,00
Ospitale-arreta	0,00
Lehen Mailako Arreta	15,00
Traturako Gaitasuna	5,50

11. NOLA LOR DEZAKET EBALUAZIO-PROZEDURA HONETAN LORTU DITUDAN PUNTUAZIOEN KOPIA?

"Ebaluazioa" fitxan, pantailan agertzen diren puntuazioen laburpenaren azpian, **"Deskargatu ebaluazioa" botoia** dago (ikus pantaila-irudia). Sakatuz gero, puntuazioen kopia bat lortuko duzu PDF formatuan.

Hobetzeko jarrera eta Aldaketetara egokitzea	0,00
Hobekuntzarako ekarpenak	0,00
Aldaketetara egokitzea	0,00

Deskargatu Ebaluazioa

Erreklamazioa

Erreklamazioak arrazoituta egon behar du. Erreklamazio bakarra aurkeztu ahal izango da, eta hura justifikatzen duen dokumentazioa erantsita bidali behar da.

Erreklamazio data: Erreklamazio ordua: Deskargatu Erreklamazio Frogagiria

"Deskargatu Ebaluazioa" botoia

12. NIRE CURRICULUMEKO MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAK IKUSITA, USTE DUT EZ DIRELA KONTUAN HARTU NIRE CV-AN ERREGISTRATU DITUDAN MEREZIMENDU GUZTIAK. ZERGATIK?

Gogoratu baldintza hauek guztiak betetzen dituzten curriculum-merezimenduak soilik hartzen direla kontuan: (1) aplikazioan "**Baliozkotuta**" egoeran daude; (2) **lortu nahi den mailaren iraunaldian** lortutako eta amaitutako merezimenduak dira, hau da, sei edo zazpi urtean (lanbide-garapeneko I. maila lortu nahi dutenentzat izan ezik; pertsona horientzat denbora osoa hartzen da) eta **2023ko abenduaren 31ra arte**; eta (3) **2425/2023 Ebazpenaren eranskinetan berariaz identifikatuta** daude, B blokean ebaluarri gisa, eta, *Erakundearekiko lankidetz*a azpifaktoreari dagokionez, C blokean ebaluarri gisa.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, irakurri "Ohiko galderak autoebaluazio-fasean" dokumentua.

13. A1 LANBIDE TALDEKO LANGILEA NAIZ ETA USTE DUT AKATS ARITMETIKO BAT DAGOELA A BLOKEKO PUNTUAZIOEN ZENBAKETAN, "ASISTENTZIA-JARDUERA" FAKTOREAN, 28,833 PUNTU BESTERIK EZ DIT EMATEN, BAINA ATALEN BANAKAPENEAN IKUSTEN DA PUNTUAZIO HANDIAGOA DUDALA. ZER GERTATU DA HEMEN?

Ez da akats aritmetiko bat. A1 lanbide-taldean, "Asistentzia-jarduera" faktoreak bi azpifaktore ditu: alde batetik, "Helburuak lortzeko eta betetzeko orientazioa", eta, bestetik, "Eraginkortasuna kudeaketan". Dena den, kontuan izan bi azpifaktoreen puntuazioak gehitzen direla faktore horren azken puntuazioa lortzeko. Era berean, azpifaktore horietako bakoitzeko puntuazioa lortzeko, azpifaktore horiek osatzen dituzten elementuen batez besteko puntuazioa lortzen da. Adibidez, "Helburuak lortzeko eta betetzeko orientazioa" azpifaktorearen puntuazioa "Errendimenduaren joera", "Zerbitzuaren batez besteko konparazioa" eta "Osakidetzaren batez besteko konparazioa" elementuen batez besteko aritmetikoa kalkulatuaz lortzen da.

Azken batean, aplikazio informatikoak beti aurkezten dizkizu elementu ebaluarri bakoitzean lortu dituzun puntuazio guztiak, baina, ondoren, azpifaktore edo faktore bakoitzaren puntuazioak ebaluazio-sistemaren definizioaren arabera kalkuluen bidez lortzen dira.

14. USTE DUT C BLOKEKO PUNTUAZIOEN ZENBAKETAN AKATS ARITMETIKO BAT DAGOELA. "ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA" FAKTOREAN, 5 PUNTU DITUT KOMITEEN, BATZORDEEN, EPAIMAHAIEN ETA BESTE ORGANO KORPORATIBO BATZUEN ATALEAN; BESTE 5 PUNTU ZERBITZU-ERAKUNDEETAKO KOMITE, BATZORDE, EPAIMAHAI ETA BESTE ORGANO BATZUETAN; ETA 3 PUNTU GEHIAGO OSAKIDETZAKO LANTALDEETAN, HAU DA, GEHIENEZ 13 PUNTU. APLIKAZIOAK, ORDEA, GUZTIRA 5 PUNTU BAINO EZ DIZKIT EMATEN "ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZAN". ZER GERTATU DA HEMEN?

Ez da akatsa, "Erakundearekiko lankidetzan" faktorean gehienez 5 puntu lor baitaitezke lanbide-talde guztietan. Aplikazio informatikoak adierazten dituzun ataletako bakoitzean lortu dituzun puntuazioak erakusten dizkizu (5 puntu komiteetan, batzordeetan, epaimahaietan eta beste organo korporatibo batzuetan; 5 puntu komiteetan, batzordeetan, epaimahaietan eta zerbitzu-erakundeetako beste organo batzuetan, eta 3 puntu gehiago Osakidetzako lantaldeetan). Hala ere, faktorera eramatean, ezin duzu 13 puntu lortu, **faktore horretarako 5 puntuko gehieneko puntuazioa baitago**; beraz, gehieneko puntuazio hori da zure ebaluazioan azkenean erregistratzen dena.

3. MAILA-ESLEIPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA

15. EBALUAZIO NEGATIBOA LORTU DUT ETA EZ NAGO ADOS HORREKIN. ZER EGIN DEZAKET?

Ez bazaude ados ebaluazio negatiboaren emaitzarekin, **erreklamazioa aurkez dezakezu 10 egun balioduneko epean**, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren 787/2024 Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioa **lanbide-garapenaren aplikazio informatikoaren bidez** egin behar da, dokumentu honetako ohiko galderetan zehazten den bezala.

16. NIRE KASUAN, EBALUAZIO POSITIBOA LORTU DUT, BAINA USTE DUT BLOKEETAKO BATEAN NIRE PUNTUAZIOA HANDIAGOA IZAN BEHARKO LITZATEKEELA. ZER EGIN DEZAKET?

15. galderaren erantzunean adierazi den bezala, **10 egun balioduneko epean egin dezakezu erreklamazioa**, 787/2024 Ebazpena lanbide-garapenaren aplikazio informatikoaren bidez argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

17. ZER EPE DAUKAT 787/2024 EBAZPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA EGITEKO?

2023ko ekitaldiko lanbide-garapeneko ohiko deialdian maila-esleipenaren behin-behineko zerrendari buruzko erreklamazioa egiteko epea 10 egun baliodunekoa da, 787/2024 Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hau da, **2024ko urriaren 25tik azaroaren 8ra bitartean**, biak barne.

18. NON EGIN BEHAR DUT 787/2024 EBAZPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA?

Lanbide-garapenaren aplikazio informatikora sartu behar duzu (<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>), Intranetetik edo Osakidetzaren webgunetik. Aplikazio informatikotik bertatik, erabiltzaileek bi modu izango dituzte aplikaziora sartzeko:

- **Osakidetzako langileak:** NANaren eta Norbideko pasahitzaren bidez (Osakidetzako sistemetara sartzeko erabiltzen diren berberak).
- **Osakidetzako langileak eta langile ohiak:** IZENPEren bidez (Euskadiko identifikazio elektronikoa), BakQ, ziurtagiri digitalak edo Cl@ve erabilita.

Ondoren, jarraitu **10. galderako urratsak**. Ebaluazio-prozeduran lortu dituzun puntuazioak ikusten dituzunean, “*Erreklamazioa*” atala aurkituko duzu **puntuazioen ondoren** (ikusi hurrengo bi pantaila-argazkiak).

“Ebaluazioa” fitxa

Deialdia: 1184/2023 - 2022 LG DEIALDI ARRUNTA

Egoerari buruzko datuak | Emandako zerbitzuak | Eskaerak | Izena ematea | **Ebaluazioa**

Profesionala

Deialdia: 1184/2023 - CONVOCATORIA ORDINARIA

Hautatu ahal duen maila: 3 | Lanbide Taldea: A1 | Lanpostu funtzionala: F.E. OSPITALEKO LARRIALDIETAKO MEDIKUA

Ebaluazioa

Elementua	Puntuazioa
A blokea guztira	133,00 (Min.123,00)
Jarduera Asistentziala	59,33
Helburuak Lortu Eta Retatzeko Orientazioa	43,22

Hobekuntzarako ekarpenak: 7,50

Aldaketetara egokitzea: 9,00

Deskargatu Ebaluazioa

Erreklamazioa

Erreklamazioak arrazoituta egon behar du. Erreklamazio bakarra aurkeztu ahal izango da, eta hura justifikatzen duen dokumentazioa erantsita bidali behar da.

A Blokea

Eranskinak

Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

B Blokea

Eranskinak

Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

C Blokea

Eranskinak

Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

Gorde Zirriborroa **Bidali Erreklamazioa**

19. EZ NAGO ADOS HAINBAT EBALUAZIO-BLOKETAN LORTU DUDAN PUNTUAZIOAREKIN. ERREKLAMAZIO BAT EGIN BEHAR AL DUT BLOKE BAKOITZEKO?

Ez, **erreklamazio bakar**ra egin dezakezu. Hori bai: zure erreklamazioan **ebaluazio-blokeak bereiz ditzakezu**, egokituz jotzen dituzun bloke edo blokeetan alegazioak eginez.

Erreklamazioa

Erreklamazioak arrazoituta egon behar du. Erreklamazio bakar

A Blokea	
Eranskinak	Tm
Izena	

A Blokearen erreklamazioa

B Blokea	
Eranskinak	Tm
Izena	

B Blokearen erreklamazioa

C Blokea	
Eranskinak	Tm
Izena	

C Blokearen erreklamazioa

Horrela, adibidez, zure erreklamazioa bloke bati buruzkoa bada, zure alegazioak **bloke horri dagokion atalean idatziko dituzu** (ikusi pantaila-argazkia).

Erreklamazioa

Erreklamazioak arrazoituta egon behar du. Erreklamazio bakar

Erreklamazio data

A Blokea	
Eranskinak	Tm
Izena	
274-2024 E. LGko behin-behineko esleipenak.pdf	903.37 kB

Erreklamazioa *

aa

A Blokearen alegazioak

Noski, zure kasuan, zure erreklamazio bakar

rean aldi berean alegazioak egin ditzakezu hiru ebaluazio-blokeetarako (A blokea, B blokea eta C blokea).

KONTUZ: Zure erreklamazioan ebaluazio-bloke bakarrerako alegazioak badaude, **gero ezingo duzu bigarren erreklamaziorik bidali**, eta ezingo duzu editatu edo osatu jada bidali zenuen erreklamazioa.

20. ZER EGIN BEHAR DUT DOKUMENTUAK ERANSTEKO EBALUAZIO-BLOKERAKO EGITEN ARI NAIZEN ERREKLAMAZIOARI?

Ohikoa denez, erantsi nahi duzuna dokumentuak igotzeko **eremuaren gainean arrastatu**. Bilatu ere egin dezakezu, dokumentuak igotzeko eremuan dagoen "**Bilatu**" botoia sakatuz (ikusitako pantaila-argazkia).

Izena	Tm
274-2024 E. LGko behin-behineko esleipenak .pdf	903.37 kB

**Dokumentuak
igotzeko
eremua**

21. IKUSI DUT ALEGAZIOAK EGINEZ GERO EBALUAZIO-BLOKE BAKOITZEAN DOKUMENTUAK ERANTSI BEHAR DITUDALA. ZER DOKUMENTU ERANTSI BEHAR DITUT?

Zure erreklamazioan egiten ari zaren alegazioak **egiaztatzeko edo arrazoitzeko aukera ematen dizuten dokumentuak** erantsi behar dituzu. Kontuan izan zure **alegazioak egiten ari zaren ebaluazio-bloke bakoitzerako** dokumentazioa erantsi behar duzula; bestela, aplikazio informatikoak ez dizu erreklamazioa bidaltzeko aukerarik emango.

22. ZENBAT DOKUMENTU ERANTS DITZAKET BLOKE BAKOITZEAN?

Alegazioak egiten dituzun **bloke bakoitzean, fitxategi bakarra erantsi dezakezu, PDF formatuan, 2 MBko mugarekin**. Alegazioetan dokumentu bat baino gehiago erantsi nahi baduzu, aldezturik batu behar dituzu, aukera hori ahalbidetzen duen aplikazioaren baten bidez.

23. EZ DUT NIRE ERREKLAMAZIOA EGITEN AMAITU LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAN. BESTE UNE BATEAN JARRAITU AL DEZAKET?

Bai, zure erreklamazioa lanbide-garapenaren aplikazio informatikoan egiten jarrai dezakezu, **baldin eta 787/2024 Ebazpenaren aurka erreklamazioa egiteko epean bazaude, hau da, 2024ko urriaren 25tik azaroaren 8ra bitartean, biak barne**. Horretarako, aplikazioan idatzitakoa gorde behar duzu, "**Gorde zirriborroa**" botoia sakatuz.

24. 787/2024 EBAZPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA IDAZTEN AMAITU DUT. NOLA BIDALTZEN DA?

Behin zure alegazioak idatzi ondoren ebaluazio-bloke bakoitzean (A blokea, B blokea eta/edo C blokea), zeinetan zure puntuazioak berrikustea nahi duzun, eta horietako bakoitzean alegazioak egiaztatzen edo arrazoitzen dituzten dokumentuak erantsi ondoren, "**Bidali erreklamazioa**" botoia sakatu behar duzu. Bestela, zirriborro-egoeran geratuko da, eta ez da jasotzat joko. Gogoratu erreklamazioa egiteko epea 10 egun baliodunekoa dela, 787/2024 Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hau da, **2024ko urriaren 25tik azaroaren 8ra**, biak barne.

Bidali ondoren eta zirriborro gisa gorde ondoren azaltzen den mezua berbera da: "*Erreklamazioa behar bezala gorde da*". Bidalita edo zirriborro gisa gordeta dagoen jakiteko, bidali bada, testu hau agertuko da hemen:

Erreklamazioa

Erreklamazioak arrazoituta egon behar du. Erreklamazio bakarra aurkeztu ahal izango da, eta hura justifikatzen duen dokumentazioa erantsita bidali behar da.

Erreklamazio data: 22.04.2024 Erreklamazio ordua: 12:08:36

Deskargatu Erreklamazio Frogagiria

Deskargatu
erreklamazio frogagiria

Gainera, profesionalaren fitxa orokorraren barruan, testu hau agertuko da "Egoera" atalean:

EBAZPEN-ZK.	DEIALDIAREN DESKRIBAPENA	EGOERA	URTEA	AURKEZTUA	LAN.TAL.	HAUTATU AHAL DUEN MAILA	EBALUAZIOA	EKINTZA
1184/2023	Delialdi Arrunta	Erreklamazioa aurkeztuta	2023	BAI	A2	1	NEGATIBOA	

Erreklamazioaren
egoera

25. 787/2024 EBAZPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA BIDALTZEN SAIATZEN ARI NAIZ, BAINA EZ DUT LORTZEN LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAK ERREKLAMAZIOA BIDALTZEA. ZER EGIN DEZAKET?

Jarri harremanetan CAUekin, bai telefonoz (945006350 – 806350), bai formularioaren bidez (<https://inkestagune.osakidetza.eus/index.php/888768?lang=es>).

Nolanahi ere, ziurtatu aldeztu aurretik **alegazioak egin dituzun ebaluazio-bloke bakoitzean erreklamazioa arrazoitzen duten dokumentuak erantsi dituzula**. Izan ere, dokumentaziorik erantsi ezean, aplikazio informatikoak ez dizu ahalbidetuko erreklamazioa bidaltzea.

26. ERREKLAMAZIOAREN FROGAGIRIA DESKARGA DEZAKET?

Bai. Erreklamazioa lanbide-garapenaren aplikazio informatikoan entregatzen duzunean, haren frogagiri bat deskarga dezakezu, "**Deskargatu erreklamazioaren frogagiria**" botoia sakatuta (ikus pantaila-argazkia).

Deskargatu erreklamazio frogagiria

Eranskinak	Izena	Tm
	274-2024 F. LGto behin-behineko esleipenak.pdf	903.37 KB

27. DUELA EGUN BATZUK, 787/2024 EBAZPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA EGIN NUEN LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAREN BIDEZ. ORAIN BIGARREN ERREKLAMAZIO BAT EGIN NAHI DUT. ZER EGIN BEHAR DUT?

Ezin da bigarren erreklamaziorik egin 787/2024 Ebazpenaren aurka. Horregatik, lanbide-garapenaren aplikazio informatikoaren bidez entregatu aurretik, ziurtatu zure erreklamazioa guztiz osatu duzula eta alegatu nahi dituzun elementu guztiak jasotzen dituela.

28. NIRE KASUAN, 787/2024 EBAZPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA ERE EGIN NUEN, BAINA ORAIN KONTUAN HARTZEKO BESTE DOKUMENTU ETA ELEMENTU BATZUK ERANTSI NAHI DITUT.

Ezinezkoa da jada egindako erreklamazio bat aldatzea, dokumentu gehiago eranstea, berrikustea, aldatzea edo editatzea. Horregatik, lanbide-garapenaren aplikazio informatikoaren bidez entregatu aurretik, ziurtatu zure erreklamazioa guztiz osatu duzula eta alegatu nahi dituzun elementu guztiak jasotzen dituela.

29. 787/2024 EBAZPENAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA EGIN NUEN, BAINA ORAIN BALIOGABETU NAHI DUT.

Ezin da jada egindako erreklamazio bat baliogabetu edo hartan atzera egin. Erreklamazioa aztertu eta gainerakoak bezala ebatziko da, baietsiz edo ezetsiz.

30. ERREKLAMAZIOA EGIN DUT 787/2024 EBAZPENAREN AURKA. NOIZ ETA NOLA JAKINGO DUT BAIETSIA IZAN DEN?

Garapen-mailak esleitzeko behin betiko zerrenda argitaratzeko agindua ematen duen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpena argitaratzen denean, erreklamazioa egin duzun **lanbide-garapenaren aplikazio informatikoan** sartu ahal izango zara, eta bertan egiaztatu ahal izango duzu baietsia edo ezetsia izan den, bai eta arrazoiak kasu bakoitzean.

Jakina, ebazpen hori argitaratzen denean, **mailen esleipenaren behin betiko zerrendan** egiaztatu ahal izango duzu deialdi honetan lortu nahi duzun garapen profesionalaren maila esleitu zaizun.

4. HURRENGO URRATSAK

31. ZEIN DIRA EGIN BEHARREKO HURRENGO URRATSAK LANBIDE-GARAPENEN DEIALDI HONETAN?

787/2024 Ebazpenaren aurka erreklamazioak egiteko epea amaitu eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak aginduko du **mailak esleitzeko behin betiko zerrenda** ebazpen bidez argitaratzeko, ebazpenaren bidez. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratuko da, eta Osakidetzaren intranetaren eta web korporatiboaren bidez emango da haren berri.